

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN		NAFARROAN	
100	281	115	494
positibo berri	hildako	positibo berri	hildako
3.111	72	7.752	145
positibo guztira*	ospitalizatuta	positibo guztira	ospitalizatuta
*Hernanin 55, Astigarragan 20		Sendatuak: EAE 14.986, Nafar. 3.297	

«Nahiz une batez igarri heriotzari usaina, ze gizatasun itzela, ze portaera bikaina»

40 urte beteko dira gaur, Martin Zabaleta hernaniarrak Everesteko gailurra zapaldu zuela. Juanjo Uriak, orduan Hernaniko alkate zenak, ondo gogoan ditu «herrian nabaritzen zen urduritasun eta jakin nahia». Balentriaren ondoren Zabaletari eskainitako bi bertso berreskuratu ditu Uriak, bere artxibotik.

HERNANI ALPINISMOA

1980ko maiatzaren 14an zapaldu zuen aurrenekoz, euskaldun batek, munduko tontorrik altuena. Eta Martin Zabaleta mendizale hernaniarrarenak izan ziren Everestera (8.848 metro) bidea osatu zuten oin haiek, orain dela 40 urte. 12 kideko Euskal Espedizioaren parte, Zabaleta bera eta Pasang Temba sherpa iritsi ziren gailurrera. Gaur izango du urteurren borobila, balentriak.

Kanpamendu Nagusitik, Lorente eta beste bi sherperekin batera, bost lagunek hasi zuten tontorrerako bidea, Hegoaldeko Lepotik, 02:30etan. Zabaletak eta Tembak egin zuten aurrera, eta 15:30etan iritsi ziren tontorrera.

16:15etan hasi zuten beherako bidea, baina 10 metroko paretan erori zen Temba, eta han pasa behar izan zuten gaua, zirrikitu batean, ezer gabe. Hurrengo egunean iritsi ziren hirugarren kanpamendura, haien bila igotako hiru sherperekin laguntzaz.

Egun haiek bizi zituzten hernaniarrek, ondo gogoan izango dituzte. Juanjo Uriak, orduan herriko alkate zenak, ez ditu ahaztu: «urduri geunden Martinekin harreman zuzena genuenok, eta herrian ere nabaria zen urduritasuna eta jakin nahia, Martinek zer egingo ote zuen», kontatu du.

Garai hartan Zabaletari eskainitako bi bertso berreskuratu ditu Uriak, bere artxibotik:

Doinua: Aita izena kanta beharrak

*Zortzi milako mendi erraldoi
hauetan xamurrik ezta,
eta abian jarri ezker
ze ardura ta ze kezka,
baina taldea gogotsu joan zen
itxaropenez gainezka,
herria berriz, albisteen zain
urduri eta galdezka,
ea Martinek jada zapaldu
ote zuen Everesta.*

Doinua: Baserrian jaio nintzen (Habanera)

*Gorantza hustu egin zen
baina egin zuten gaina,
behera bidea ordea
arriskutsu ta labaina,
gero sherpa erori zen
arazo larria baina,
hura bakarrik utzita
ez zen joango kapitaina,
nahiz une batez igarri
heriotzari usaina,
ze gizatasun itzela,
ze portaera bikaina,
larrialdian itzuli
zion sherpari ordaina,
esanez: «hau ere bada,
beste gizakiok aina». K*



Martin Zabaleta eta Juanjo Uriak, udaletxeko eskaileretan, omenaldiaren egunean.

Elikagai postuak Urbieta kalean eta landareenak Latsunbeberriko kirol pistan, gaurko ferian

Segurtasun neurri berriak hartuko dituzte ostegunetako ferian, eta 08:00etatik 15:00etara izango da, Urbieta kalea trafikora erabat itxita.

HERNANI AZOKAK

Normaltasunera bidean pixkanaka, egoerara egokitu dituzte, Hernanin egiten diren azoka ezberdinak. Ostegunetako feriak, segurtasun neurri berriak izango ditu gaurtik, baina azokarik ez da faltako.

Goizeko 08:00etan hasi, eta arratsaldeko 15:00ak arte egon-

go da azoka; eta bitarte horretan, trafikora erabat itxiko dute feriarene eremua, bi norabideetan, Urbieta kalea oinezkoentzat bakarrik utzita.

Horrela, Urbietan bertan jarriko dituzte elikagai postuak, eta 10entzako tokia izango da. Izan ere, postuen arteko distantzia haundituko dute, segurtasun neurri gisa, eta sei metro

utzi beharko dituzte haien artean, gutxienez.

Hori horrela, landare saltzailerak ez dira Urbieta kalean egongo: Latsunbeberriko kirol pistan jarriko dituzte, Urbieta kalearen azpiko aldean, hain justu.

Aldaketen aurrean, jarriko diren seinaleei kasu egin eta udaltzainen aginduak betetzeko eskatu du Udaltzaingoak.

«Salmenta mailarekin pozik», Behemendiko azokakoak

Beste azoka bat ere jarri zuten joan den larunbatean, Plaza Be-

rrin: bost posturekin izan zen Behemendiko azoka, bertan.

Larunbateko esperientziarekin gustura agertu dira, Behemendikoak. Eta jakinarazi dute, «pozik» bueltatuko direla Plaza Berrira, ekainaren 13an, azokaren hurrengo hitzorduan, «tar-tean beste eragozpenik ez bada go behintzat».

Azokan postua jarri zutenek, nabarmendu dute, postueta- ra gerturatu ziren herritarrek «normaltasunera bidean beste pauso bat antzeman» nahi zutela adierazi zieten. Eta aipatu

dute, plazaren aldameneko kaleetan, «lasaia eta arduratsua» izan zela jendearen presentzia eta mugimendua.

Gainera, larunbatean postua jarri zutenek, azaldu dute «salmenta mailarekin pozik» etxeratu zirela, «bereziki kontutan izanda bi hilabetetako etena izan duela azokak».

Hortaz, etenalditik bueltatu ondoren, azokari segida emateko gogoz daude Behemendin, eta ekaineko hitzordu hori, dagoeneko jarrita daukate: hilaren 13an, 09:00etatik 14:00etara. K

ALAI A

ODONTOLOGIA ZENTROA

PREBENTZIO ETA KONTSERBATIO ODONTOLOGIA
HORTZ ESTETIKA
AHO KIRURGIA
INPLANTEAK
PROTESI FINKOA ETA MUGIKORRA
PERIODONTZIA
ORTHOAPNEA

ODONTOPEDIATRIA
ERRADIOGRAFI PANDRAMIKOAK
TELERADIOGRAFIK
3D SCANNERRA
AHO BARRUKO SCANNERRA
KIRURJIA NABEGATUA
ORTODONTZIA KONBENTZIONALA ETA IKUSEZINA

ETENIK GABEKO ORDUTEGI BERRIA
Asteleheneetik ostiralera: 08:30 - 21:00
Larunbatetan: 08:30 - 14:00

Antziola 11, behea. HERNANI Tel. 943 33 53 73 www.alaiaclinica.com alaiahernani@gmail.com

BIKAIN

OKINDEGI TA GOZOTEGIA

Eguneroko ogia beti bikain

Elkano 12 - Tel.: 943 55 31 42
Ezlagu poligonoa - Tel.: 943 55 00 89 20120 Hernani

GAUR Zerua estalita egongo da gaur ere, eta giro frexkoa izango dugu. Goizean euria egin dezake tarteka, eta arratsaldean zaparradak botako ditu barnealdean. Iparraldeko haizea ibiliko da, hasieran ahul, baina indartsuago arratsaldean. **Min.11° / Max.15°**

BIHAR Giro frexkoa eta euritsua bihar, berriro ere. Zerua oso lainotuta egongo da, eta euria egingo du, sarriago kostaldean. Iparraldeko haizea ibiliko da bihar ere, bolada gogorrek kostaldea. Temperatura, berdintsu. **Min.11° / Max.14°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** Gaeuz: **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**



Enplegu arloan eta dirulaguntzetan laguntzeko, zerbitzua martxan

Informazio eta aholkularitza zerbitzua abiatu du Beterrri-Buruntzak, internet bidez edo telefonoz.

URUMEA BETERRI-BURUNTZA

Koronabirusak eragindako egoeraren aurrean, asko izan daitezke herritarrek izan ditzaketan zalantzak, enplegu arloan zein dirulaguntzetan, esaterako. Eta horiei erantzuteko, informazio eta aholkularitza zerbitzua jarri du martxan Beterrri-Buruntzak.

Norbanako, langabetu zein familientzako laguntza zerbi-

tzua izango da: «helburua da, herritarrek enplegu arloan zein dirulaguntzen inguruan dituzten kontsulta espezifikoei erantzuna ematea, eta egoera bakoitzaren arabera jarraitu beharreko prozedura-jarraitibidei buruzko informazioa, orientazioa eta aholkularitza ematea», azaldu dute. Zerbitzua jaso nahi dutenek, bide dituzte horretarako. Bate-tik, kontsulta egin dezakete in-

ternet bidez, beterrriburuntza.eus web orrian, COVID-19 atalean sartu eta galdetgia beteta. Bertan aurkituko dituzte, baita ere, zerbitzuaren ezaugarri gehiago.

Eta bestetik, telefonoz ere eskatu daiteke laguntza, zerbaki honetara deituta: 688 774 650. Bi kontsulta mota egin ahal izango dira. Alde batetik, enplegu orientazioa eta hainbat kudeaketa izapidetzeko laguntza tekniko eskatu daiteke. Eta bestetik, dirulaguntza eta neurriei buruzko informazio eta aholkularitza zerbitzua ere eskainiko dute. **K**

'Pinturillo 2' eta kontsumoa, gaurkoan

ASTIGARRAGA-HERNANI GAZTELEKUA

Aste honetako ekintzekin jarraitzeko, Pinturillo 2 jolasean ariko dira gaur, Astigarragako Gaztelekukoak; eta *Gazteskulanak* egingo dituzte bihar: rummikuba egingo dute. Hernaniko Gaztelekuan, berriz, kontsumoen inguruko galdetgia zabalduko dute Instagramen, gaur 18:00etan.

Bihar berriz, zuzeneko bidez, bideo labor bat eskainiko dute arratsaldeko 18:00etan, Streaming bidez. Eta ondoren, bideo labor horren hausnarketa bat egingo dute.

Beste bi informatika saio, gaurkoan

URUMEA INFORMATIKA

Konfinamenduan teknologia berriek eta internetak indarra hartu duten honetan, herritarrek trebatzeko ikastaro eta hitzaldiak antolatu dituzte. KZguneak, gaur eskainiko du beste hitzaldi bat online, YouTubeko KZguneaTIC kanalean: *Zure ordenagailua birus eta bes-telako mehatxuetatik babestu*. Gaztelaniaz izango da, goizeko 11:00etatik 13:00etara, helbide honetan: labur.eus/hyia5.

Hernaniko Udalak, berriz, nerabeentzako informatika ikastaroa antolatu du: *Ordenagailua hobeto erabiltzeko gakoa*. Asteartean egin zuten aurreneko saioa, Arkaitz Sukuntzaren eskutik.

Gaur izango da bigarren eta azkena, arratsaldeko 16:00etatik 18:00etara hain zuzen.

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzten duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

SABINO LEIZA REPARAZ

Atzo hil zen, 85 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta

- Goian bego -

Haren emaztea: Maria Recondo; seme-alabak: Joxe Ramon eta Mila Balda, Imanol eta Izaskun San Jose, Mikel eta Amaia Ormazabal; bilobak: Beñat, Ander, Iñigo, Ane, Elene; anai-arrebak: Manuel (†) eta Carmen (†), Soledad (†) eta Agustin (†), Josefina eta Agustin (†), Jesus (†), Domi (†) eta Fermin (†), Raimundo, Carmen eta Juan; ezkon anai-arrebak: Eusebio (†) eta Pakita; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuetu eta arren etor zaitetzela **BIHAR OSTIRALA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, JOAN BATAIATZAILEAREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik mila esker.

Hernanin, 2020ko maiatzaren 14an

Oharra: Gorpua ORBEGOZO TANATORIOAN gaur, osteguna, goizeko 10:00 -13:00 eta arratsaldeko 17:00 - 20:00 egongo da.



SABINO LEIZA REPARAZ

Muxu bat gure lagun Mikeli

MIKELEN KUADRILA

Hernanin, 2020ko maiatzaren 14an



SABINO LEIZA REPARAZ

Muxu bat Mikel eta familiari

PORTUKO JAIK

Hernanin, 2020ko maiatzaren 14an



SABINO LEIZA REPARAZ

Besarkada bat Mikel eta familiari

PORTU AUZO ELKARTEA

Hernanin, 2020ko maiatzaren 14an



Haurren sexualitateaz, Nerea Sanchorekin

Tratu Onen Foroa gidatuko du psikologo eta sexologoak, 18:00etan hasita.

HERNANI ARREMANITZ

Tratu Onen Foroa antolatu du gaurko, Arremanitz kooperatibak. Interneten izango da, Zoom programaren bitartez; eta haurren sexualitateari buruz ariko dira bertan.

Nerea Sancho Esnaola psikologo eta sexologoak gidatuko du saioa, arratsaldeko 18:00etatik 19:00etara; eta Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzako 3garren mailara bitarteko haurren gurasoentzat izango da bereziki.

«Gurasook egunerokoan ditugun erronkak gutxi baziren, egun COVID-19ak muturreko egoerak ekarri dizkigu, auke-rak eta zailtasunak biderkatuz. Haurrekin elkarbizitza intentsuagoa da, partekatzen diren une bereziak gehiago, baita nekeak eta buruhausteak ere.

Sexualitateak, etxeko giro desberdinetan ageriko lekua har dezake: begi-bistako esplorazioak, galdera deserosoak, mugikorren bitartez sartzen diren edukiak, gurasoen arteko harremana begi bistan egotea... Honen guztiaren inguruan esku-hartzeko irtenbide eta zaintza praktikoa sorta eskainiko dugu saio honetan. Eta elkarrekin bizi diren gurasoek, bikote harreman intimoak zaintzeko eta bizi-pozari heltzeko, gako errealista eta egingarri batzuk ere eskuratuko dituzte», aurreratu dute.

Bi zati

Aurreneko ordu erdian, hitzaldia eskainiko du Sanchok berak, haurren sexualitatearen inguruan; eta bigarrenan, bertaratuen galderei erantzun- go die. **K**

JOSÉ DÍAZ MIRANDA

Herenegun hil zen, 93 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta

- Goian bego -

Haren emaztea: Elena López; Seme-alabak: Silvino eta María Luisa, Rubén y Mariage; ahizpa politikoa: Araceli; bilobak; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuetu eta arren etor zaitetzela **GAUR, OSTEGUNA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, JOAN BATAIATZAILEAREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2020ko maiatzaren 14an



SABINO LEIZA REPARAZ

Gauero izkututzen da eguzkia itsaso aldetik, baina zu ez zara aldenduko attona, gure bihotzetik.

ZURE BILOBAK: BEÑAT, ANDER, IÑIGO, ANE ETA ELENE

Hernanin, 2020ko maiatzaren 14an



SABINO LEIZA REPARAZ

Besarkada bat familiari

IMANOLEN KUADRILA

Hernanin, 2020ko maiatzaren 14an



IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**